

PRENTSA OHARRA 2019.05.13

## **Etxepare Euskal Institutuak 580.000 euro bideratuko ditu euskal kultura nazioartean sustatzeko diru-laguntzetarako**

- **Sortzaileen mugikortasuna sustatzeko, euskal kultura zabaltzeko, literatura itzulpenak egiteko eta arte azoketan parte hartzeko diru-laguntzak eskatzeko epea zabalik dago, baita bidaia poltsak eskatzekoa ere.**
- **Ekainean zehar zabalduko da ikus-entzunezkoen, arte eszenikoaren, liburuaren eta musikaren alorreko nazioarteko azoketan parte hartzeko diru-laguntzak.**

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak Etxepare Euskal Institutuaren hiru diru-laguntza deialdi argitaratu zituen pasa den astean eta eskaerak egiteko epea jada zabaldu da: euskal sortzaileen mugikortasuna sustatzeko diru-laguntzak, euskal kultura nazioartean sustatu eta zabaltzeko jarduerak burutzekoak eta literatura itzulpenak egitekoak. Diru-laguntza hauen xedea adierazpen eta modalitate ezberdinetan euskal kultura nazioartean sustatu eta hedatzea da.

**Euskal sortzaileen mugikortasuna sustatzeko diru-laguntzak** 2019an jaialdi edo kultur jarduera konkretuetan (birak, denboraldiak, erakusketak, lehiaketak, ekitaldiak, egonaldi proiektuak) parte hartzeko bidaia-gastuak, muntaia-gastuak, eszenografia edo materialen garraioa, ostatua eta dietak ordaintzeko izango dira. Diziplina artistikoaren arabera, lau prozeduratan banatu dira, eta guztira 360.000 euroko zuzkidura dute: antzerkia 130.000 euro, musika 125.000 euro, dantza 45.000 eta arte plastikoak eta ikusizkoak 60.000 euro, azken bi hauetan azken urtean baino 5.000 euro gehiago hurrenez hurren. Diru-laguntzak eskatzeko epea ekainaren 10era arte egongo da irekita.

Ekainaren 10ean bertan itxiko da **euskal kultura nazioartean sustatu eta zabaltzeko jarduerak burutzeko** diru-laguntza deialdian izena emateko epea ere. Deialdi honen helburua da profesionalak ez diren nazioarteko kultur

jarduerak sustatzea, Etxepare Euskal Institutuaren ohiko deialdien babesean diru-laguntzarik jaso ezin dutenak. 30.000 euro bideratu dira horretarako.

2018ko diru-laguntzei esker 15 itzulpen egin ostean, aurten beste 39.000 euroekin sustatuko dira **literatura-itzulpenak**. Kopuru honen bidez bi itzulpen jarduera lagunduko dira: jatorriz euskaraz idatzi eta argitaratutako literatura lanak edozein hizkuntzatarara itzultzea eta Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatutako idazleek jatorriz gaztelaniaz idatzi eta argitaratutako literatura lanak euskara ez den beste edozein hizkuntzatarara itzultzea. Epea ekainaren 10ean amaituko da kasu honetan ere.

Beste bi diru-laguntza deialdi ere zabalik dira. Alde batetik, zinema eta literatura arloko sortzaile eta eragileentzako (idazleak, ilustratzaileak, itzultzaileak, editoreak, zuzendariak, aktoreak, gidoigileak, ekoizleak, etab.) **bidaia poltsen deialdia**, nazioartean hitzaldi, topaketa edo ekitaldietan parte hartu ahal izateko bidaia-gastuak, ostatua eta dietak ordaintzea helburu duena (20.000 euro). Eta bestetik, 36.000 euroko zuzkidura duen **nazioarteko arte azoketan parte hartzeko** diru-laguntzak. Zehazki, arte azoka hauetan stand-ak alokatzeko baliatuko da laguntza hau.

Azkenik, ekainean zehar argitaratuko dira **ikus-entzunezkoen, arte eszenikoaren, liburuen eta musikaren alorreko nazioarteko azoketan** parte hartzeko diru-laguntzak (90.000 euro).

Diru-laguntza hauek guztiak Euskal Autonomia Erkidegoan errolda edo egoitza soziala duten pertsona fisiko eta juridikoek jaso ahal izango dituzte. Gainera, zabaldu nahi den lanaren komunikazio-hitza euskara denean, sozietate-egoitza edo helbidea euskararen eremu geografikoan kokatuta duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak ere aurkeztu ahal izango dira, hau da, egoitza Nafarroan edo Ipar Euskal Herrian dutenak ere bai.

Pertsona juridikoak behartuta egongo dira eskabidea modu elektronikoan egitera Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bidez. Pertsona fisikoak aldiz eskabidea modu presentzian egiteko aukera ere izango dute.

**+Info**

Mikel Lasa  
Etxepare Euskal Institutua  
Tabakalera / Andre Zigarrogileak plaza, 1  
Donostia / San Sebastián  
T: 943 023 400 / M: 688 670 217  
[komunikazioa@etxepare.eus](mailto:komunikazioa@etxepare.eus)

[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)